

INCOGNITA PATAGONIA ESPEDIZIOA

HEGO AMERIKAKO AZKEN IZOTZ-EREMU EZEZAGUNEAN

Amerikako hegoaldeko
muturrean, Suaren Lurraldean,
oso gutxi esploratutako Cloue
izotz-eremua dago. Besteak beste
Azpeitiko Udalak lagundutako
Incognita Patagonia espedizioa
han izan da udaberrian, bertako
glaziarren egoera hurbiletik
aztertzeko asmoz. Azken
hamarkadetan izotzak atzera egin
duela behatu dute.



Eñaut Izagirre

@Ernatío

ARGAZKIAK: INCOGNITA PATAGONIA



A full-page photograph of a massive glacier wall. The ice is a deep, translucent blue, with numerous vertical crevasses and jagged, sculpted edges. The texture is highly detailed, showing the layered and fractured nature of the ice. At the base of the glacier, large chunks of ice have calved and are floating in the dark water. The overall scene is one of immense scale and natural beauty.

*Argazki honetan Eñaut izagirre
ikus daiteke –aurrealdean–
'packraft'-arekin Fouque glaziarraren
aurrealdetik gertu ur sakonera
neurtzen. Garrantzitsua da uretara
iristen diren glaziarraren aurrera
eta atzera egite prozesua ulertzeko
uraren sakonera zein den jakitea.*

Suaren Lurraldearen hego muturrean, Hoste uharteko fiordo, kanal eta mendien labirinto trinkoan dago Cloue izotz-eremua, orain gutxira arte esploratu gabea. Informazio gutxirekin eta satelite bidezko irudiak eskuartearen genituela abiatu genuen Incognita Patagonia proiektua Ibai Rico gasteiztarrak, Evan Miles estatubatuarrek eta hirurok. Helburua inguru ezezaguna esploratzea eta bertako glaziarren egoeraren berri ematea zen.

Espedizioa Puerto Williamsen (Txile) hasi genuen martxo hasieran. Han batu zitzaizkigun Keri Pashuk eta Caesar Schinas, baita 40 egunez gure kanpaleku nagusia izango zen *Northanger* belaontzia ere. Cloue izotz-eremua dagoen Hoste uhartera iristeko itsasoan ibili ginen astebete. Han, batetik izotz-eremuaren goialdea esploratu genuen, eta bestetik glaziarren aurrealdearen egoera ikertu genuen, gaur egun glaziarrek beroketa klimatikoaren erantzule gisa duten joera aztertzeko. Behin-behineko datuek erakutsi digute Cloue eremuaren azalera %20 murriztu dela 1945etik, eta murrizketa hori nabariagoa izan dela azken hiru hamarkadetan.

Proiektuak aurrera jarraitzen du, izotz-eremuaren eta inguruko geografiaren kalitate oneko kartografia argitaratzea baita gure nahia. ■



Goian: Saia dorrearen gailurrean, aurreko egunean eskalatutako Cloue mendiari begira.

Behean: 'Northanger' belaontzia Pia fiordoko Beaulieu kala txikian, atzean Darwin mendikateko tontor garaiak agerian.





Goian, ezkerrean: Suaren Lurraldeko inguru heze eta hotzetan oso ohikoak diren goroldio-zuhaixkak, hau da, bertikal hazten diren goroldioak.

Goian, eskuinean: 'Northanger' ontzia izotzez beteriko Pia fiordoaren ipar-mendebaldeko besoan nabigatzen.

Erdian: Pia fiordoko ipar-mendebaldeko Guilcher glaziarrean oso ohikoa da 'calving' izeneko gertaera. Glaziarren izotz-galeran eragin zuzena duen prozesu mekanikoa da.

Behean: Acix fiordoaren ekialdeko besoan dagoen glaziarretako bat; ikus daitekeenez, izotz-eremuaren goialdea mihi glaziarretik deskonektatu da, eta goitik erortzen diren izotzak eta elurrrak baizik ez dute elikatzen mihia.

